



EUROPA, ANIZTASUNEAN BILDURIK?

Paul Bilbao Sarria

Kontseiluko idazkari nagusia

Helbide elektronikoa: pbilbao@kontseilua.org

Ezer baino lehen BAT aldizkariari zorionak eman beharra dago. Hogei urtez geure hizkuntza-komunitatearentzat erreferente bihurtu zaigu soziolinguistika aldizkaria. Euskal Herriko zein kanpoko ekarpenak, monografikoak, azterketak, eta abar eskura jarri dizkigu aldizkariak. Zoriontzekoa, bai, hogei urteko ibilbidea eginik, baina beste hainbat urtez aurrera egiteko eskaera ere egin behar zaio; BAT aldizkaria behar dugulako.

Horrela, 20. urteurrena dela-eta, azken hogei urteotan Europan hizkuntzetan izandako mugimenduen argazkia egiteko eskaera helarazita, oso ariketa zaila zela uste nuen; izan ere, hogei urte hizkuntzen bizitzan ezer ez bada ere, egia da azken hogei urteotan Estatuak *Europa berria* erakitzen ari diren honetan, hizkuntzak ere tartean egon direla.

Ez da erraza Europan zenbat hizkuntza bizi diren adieraztea, ez eta Europan zein hizkuntza mintzo diren ere. Adibide bat jartzearren, iturri batzuen arabera, Europako Batasunean 125 hizkuntzatik gora erabiltzen dira, horietako asko azken hamarkadetan izandako migrazio-mugimenduen ondorioz sartuak. Berezko hizkuntza-komunitateei dagokienez, 60 inguru direla esan ohi da. Horrekin batera, azken hogei urteotan Estatu berriak sortu dira Europan, eta horrek hizkuntza-politika berriak ezartze-

az gain, hizkuntzen estatusetan ere eragina izan du. Garai batean Estatu-ko hizkuntza nagusia zirenak, egun *gutxiengotzat* hartzeko eskatzen diote Europari. Finean, inposizio-hizkuntza izateari utzi diotenean ohartu dira hizkuntza handiak ezartzen duten inposizioez.

AURREKO MUGIMENDUAK

Gutxiengoen hizkuntzen direlakoan bilakaera historikoa egingo badugu, zenbait egilek XVII. mendera¹ eramaten gaituzte, hain zuzen ere, Westfaliako Biltzarreko Itunera, non gutxiengo erlijiosoen babesa aitortu baitzen.

Aro Modernoak hizkuntzen bilakaeran garrantzia hartuko zuten elementuak ekarri zituen: erresumen egonkortzea, Erreforma eta inprentaren asmakuntza. Erresumak egonkortzean hizkuntza batzuk besteen aurrean indartu ziren; Erromako katolizismoaren eta ortodoxoaren arteko zismak eliza nazionalen sarrera eragin zuen, eta inprentak literatura guztiaren hedapena ahalbidetu zuen.

Hainbat egilek adierazi izan dute Aro Modernotik aurrera bi jarrera izan dela hizkuntzei dagokienez. Batetik, Erreforma Luteranoak zuzendua, non kristauak hizkuntza-berdintasunetik hartzen baitziren eta bestea Estatu-ko hizkuntzen inposizioan oinarrituta, latina eta Estatu-ko beste hizkuntzak b aztertuz. Adibide gisa Ingalaterrako eta Galesko Batasun-ituna har dezakegu, zeinaren arabera erresuma hizkuntza ofiziala ingelesa izango baitzen, edota Felipe V.ak aldarrikatutako Planta Berriko Dekretua, zeinek katalanaren erabilera ofiziala baztertu baitzuen.

XVIII. mendearen amaieran eta XIX.aren hasieran hizkuntzen trataerak aldaketa handiak izan zituen Europan. Frantziako Iraultzak kontzeptu politiko berri bat jorratu zuen: nazioa. Aipatu kontzeptu politiko berriak ondorio onuragarriak izango zituen, baldin eta nazio kontzeptuari eman zitzaion eduki estatala bestelakoa izan balitz. Izan ere, *Nazio* kontzeptuaren beharra aldarrikatu zuen Estatuak berak lotu zituen nazio-estatua kontzeptuak. Hortaz, Estatu bat sortzeko nahitaezko baldintza kulturaren eta hizkuntzaren batasuna lortzea zen; eta herritarren arteko berdintasunaren aitzakia baliaturik nazio-estatua-hizkuntza trinomioa eratu zuten.

XX. mendean, eta Lehen Mundu Gerra amaituta, gutxiengo nazionalen hizkuntza-eskubideen babesa jasotzen zuten nazioarteko zenbait itun agertu ziren Nazioen Elkartearen babespean. Bestalde, bi mundu gerren artean zenbait Estatu-ko gutxiengoen hizkuntzei begirako zenbait legegarrapen zirriboratu zuten. Belgikak, esaterako, frantsesaren eta nederlandararen arteko oreka bermatzeko zenbait neurri ezarri zituen.

Bigarren Mundu Gerra amaitutakoan, nazioarteko ordena berrirako sortu ziren tresna juridiko berriek ez zuten jasotzen gutxiengoen eskubideen inguruko ezer. Itxuras, nazio-sentimenduen inguruko elementuak sartzeak konnotazio *hitlertarrak* zekartzala zirudien. Horrexegatik, eta munduaren bake zein oreka erdiesteko, nazioarteko komunitateak Nazio

Aro Modernotik aurrera bi jarrera izan dela hizkuntzei dagokienez. Batetik, Erreforma Luteranoak zuzendua, non kristauak hizkuntza-berdintasunetik hartzen baitziren eta bestea Estatu-ko hizkuntzen inposizioan oinarrituta, latina eta Estatu-ko beste hizkuntzak b aztertuz.

XX. mendean, eta Lehen Mundu Gerra amaituta, gutxiengo nazionalen hizkuntza-eskubideen babesak jasotzen zuten nazioarteko zenbait itun agertu ziren Nazioen Elkartearen babespean.

Batuen Erakundea sortu zuen. Hala ere, tratatuen bidez eratutako mekanismo horretan gutxiengoaren babeserako sistema ahaztu zuten. Anoni Milianek esan zuen bezala "Oinarrizko eskubideetan oinarritutako babes-sistema ezartzean, nazioarteko komunitateak uste zuen giza eskubideen babesak gutxiengoaren oinarrizko eskubideak, bai eta hizkuntza-gutxiengoaren hizkuntzetako hiztunena ere, bere hartuko zituela".

Hala ere, tratatu eta itun horietan guztietan jasotako eskubideen multzoa ez da batere eraginkorra izan. Ikuspegi politiko-ideologikotik hartuta, gutxiengoekin lotutako guztia bigarren mailan geratu zen nazioarteko eztabaidan. Ez Nazio Batuen Itunean (1945) ez eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean (1948) ere, ez da ezer jasotzen gutxiengoaren eskubideez edota hizkuntza-eskubideez. Hizkuntzarengatik bereizkeria-eza besterik ez da jasotzen; hau da, hizkuntzari ez zaio izaera subjektiborik esleitzen. Hortaz, hizkuntza-eskubideak izaera juridikoa hartuko du beste eskubide substantibo bat urratzen denean.

1966an gutxiengo nazionalen babeserako zirrikitia ireki zien. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 27. artikulua arabera, hizkuntza-gutxiengoan dauden Estatueta hizkuntza-komunitate horiei ez zaie ukatuko hizkuntza erabiltzeko eskubidea. Egia da, bai, artikulua ezezko formula erabiltzen duela, eta ondorioz, ez du garbi uzten zein diren Estatuak hartzen dituzten konpromisoak. Hori garbitze aldera, 1994an Giza Eskubideen Batzordeak artikulua horren interpretazioa berbi-deratu zuen, eta ohar batean azaldu zuen artikulua modu negatiboan idatzita egon arren, gutxiengoaren identitatea edo haren kideen eskubideak babesteko neurri positiboak.

Ondoren, 1992an eta 27. artikulua horren ondorioz, Nazio Batuen Erakundeak 47/135 Ebazpenaren bidez Gutxiengo Nazional, Etniko, Erlijioso edo Linguistikoen partaide diren Pertsonen Eskubideen Deklarazioa argitaratu zuen. Hala ere, Deklarazio horrek ez zuen balio juridikorik.

Hartara, ez ditugu zuzenean aitortuta oinarrizko hizkuntza-eskubideak. Beti ere giza eskubideen hizkuntza-irizpideari erreparatu beharko zaio hizkuntza-eskubideak aitortuak izateko.

Bestalde, aipatzekoa da azken urteotan UNESCO erakundeak ere zenbait adierazpen eman izan dituela argitara, esaterako, 2001eko Kultur Aniztasunari buruzko Deklarazio Unibertsala. Tamalez, aipatu Deklarazioa ez da arautzailea. Aitzitik, hainbat printzipio ezartzen ditu Estatuak bere egin eta garatzeko konpromisoa har dezaten.

Azkenik, kontuan hartzekoak dira Europako Segurtasun eta Kooperazio Erakundeak argitaratu izan dituen ebazpen zein gomendioak, besteak beste, Helsinkiko Ituna, hezkuntzari buruzko Hagako Gomendioak, gutxiengoaren eskubideei buruzko Osloko Gomendioak, etab.

Bidean utzi ditugu Nazio Batuen Erakundeak abian jarritako hainbat tresna: Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Ituna, Haurren Eskubideen Deklarazioa, Irakaskuntzaren Eremuan Bereizkeriaren Kontrako

Hitzarmena... Luze bezain interesgarri joko luke horien guztien azterke-
ta egitea, baina beti ere arestian esandako ondorioa errepikatuko genuke,

Esan gabe doa, artikuluan zehar gutxiengoez ari garela, baina horrek ez
duela esan nahi terminologia hori onartzen dugunik. Itun guztietan *gutxiengoez*
hitz egiten da. Horrela *hizkuntza-gutxiengoen* kategorian sartzen dira
berezko hizkuntza gutxiagotuak. Ikuspegi teorikotik *gutxiengo* hitza ezau-
garri bat konpartitzen duten eta erreferentzia egiten zaion eremuan kuantita-
tiboki erdia baino gutxiago osatzen duen taldeari esaten zaio.

ETA AZKEN HOGEI URTEOTAN, EUROPAK ZER?

XXI. mendean sartuta gaudela, Europak mapa politiko berria erakusten
du. Aipatu mapa munduko demokratikoena izatea gogorarazi izan zai-
gu, izan ere, ez du erakusten beste kontinente batzuetan eskuadra eta
kartaboi bidez egindako lurralde-banaketa. Europa kulturaren kontinen-
tea dela esan izan dute, are gehiago, unibertsoa Europako ikuspegitik
ikustarazteko beharra zabaldu izan dute munduan zehar.

Bigarren Mundu Gerra amaituta, eta aurreko hamarkadetan izanda-
ko hondamendiak ikusita, Europa giza eskubideen babeserako mekanis-
moak garatzen hasi zen. Horrela, XX. mendearen erdialdean Londoneko
Tratatuak **Europako Kontseilua** ezarri zuen.

Egun 47 Estatuk osatzen dute Europako Kontseilua, eta beste bostek
behatzaile-statusa hartzen dute. Europako Kontseiluaren oinarritzko hel-
buruak giza eskubideen babesa da. Halaber, hizkuntza-eskubideen ber-
mea arian-arian ezarri izan dute, eta babes-mota desberdinak eragin ditu.
Horrela, Europako Kontseiluak ez du estatus juridiko bateratua abiatu
hizkuntza-eskubideei begira, eta horien babesa norbanakoen eskubideen
eta gutxiengo nazionalen eskubideen aitortzatik etorri da. Azkenik, aipa-
tzekoa ere bada Europako Kontseiluak bi hizkuntza ofizial besterik ez
daudela, eta ondorioz, txosten zein jakinarazpen guztiak bi hizkuntza
horietakoren batean egin behar direla.

Instituzio horrek bi tresna eskaini zizkien Estatuei gutxiengoen esku-
bideei dagokienez; batetik, Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Euro-
pako Ituna (1992) eta, bestetik, Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzar-
men-markoa (1994).

Strasbourgren eman zitzaion oniritzia 1992an Erregio edo Gutxiengo-
en Hizkuntzen Europako Itunari. Aipatu itunaren helburu nagusia abe-
rastasun kulturala babestea da; hortaz, ikuspegi kulturala du. Ondorioz,
ezin har daiteke hizkuntza-eskubideak babesteko tresnatzat. Are gehia-
go, Itunak ez du hizkuntza-eskubiderik aitortzen.

Hala ere, eskubide indibidualak edo kolektiboak ez aitortu arren, Estatuei
betebeharrak ezartzen dizkie hizkuntza horien erabilera bermatzeko. Erregio
edo gutxiengoen hizkuntzak sustatzeko trena da, eta zeharka besterik ezin har
genezake gutxiengoen hizkuntzen babeserako mekanismo juridiko gisa.

*Ez Nazio Batuen Itunean
(1945) ez eta Giza
Eskubideen Deklarazio
Unibertsalean (1948) ere,
ez da ezer jasotzen
gutxiengoen eskubideez
edota hizkuntza-
eskubideez.*

*Aipatzekoa da azken
urteotan UNESCO
erakundeak ere zenbait
adierazpen eman izan
dituela argitara,
esaterako, 2001eko Kultur
Aniztasunari buruzko
Deklarazio Unibertsala.*

Ikuspegi teorikotik gutxiengo hitza ezaugarri bat konpartitzen duten eta erreferentzia egiten zaion eremuan kuantitatiboki erdia baino gutxiago osatzen duen taldeari esaten zaio.

Europako Kontseiluko 32 Estatuak sinatu dute Ituna, baina sinatzeak ez du inolako konpromisorik eskatzen. Horrela, Frantziako Estatuak 1999an sinatu zuen, baina ez du berretsi, eta ondorioz, ez du inolako konpromisorik hartu. Egun, Europako Kontseiluko 30 Estatuak berretsi dute.

Itunaren funtzionamendua aski interesgarria da. Lehenik eta behin erregio edo gutxiengoen hizkuntzen definizioa jasotzen du Itunak. Ondoren, Itunaren helburuak eta konpromiso zehatzak jasotzen dira, eta atal horri dagokionez, Estatuak erregio edo gutxiengoen hizkuntza guztiei aplikatu behar diete. III. atalak konpromiso zehatzak jasotzen ditu Itunak, eta horretan Estatuak nahi dituzten hizkuntzei aplikatzen diete. Adibide moduan Espainiako Estatuak jarri genezake; izan ere, III. atala status ofiziala duten hizkuntzei besterik ez die aplikatuko eta irakurketa zurrun eta diskriminatzaile horren ondorioz, kanpoan geratzen dira euskara legeak Nafarroan ezarritako eremu mistoan zein ez-euskaldunean, euskara Trebiñun eta Turtziozen, asturiera etab.

III. ataleko konpromisoak zazpi eremutan sailkatuak agertzen dira: irakaskuntza, justizia, administrazioako agintariak eta zerbitzu publikoak, hedabideak, kultur jarduerak eta ekipamenduak, ekonomia- eta gizarte-bizitza, eta azkenik, mugaz haraindiko elkartrukeak. Eremu bakoitzak hainbat konpromiso jasotzen dituzte eta Estatuak 35 konpromiso hartu beharko dute.

Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen-markoa 1994ko azaroaren 10ean onartu zuen Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak. Gutxiengo nazionalen babesa arautzen duen lehen ituna dela esan daiteke.

Hitzarmen-markoak ez ditu gutxiengoen hizkuntzak aipatzen, une oro definitu gabeko gutxiengo nazionalaz ari da. Definizio-ekak zaildu egiten du Hitzarmen-markoaren beraren aplikazioa, edo hobeki esanka, Estatuak aukera handiak eskaintzen dizkie modu arbitrarioan jarduteko. Esaterako, Espainiako Estatuak sinatu eta berretsi egin du Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen-markoa, baina ijitoen komunitateari besterik ez dio aplikatzen. Beste Estatu batzuek, Erresuma Batuak esaterako, berezko hizkuntza-komunitateak ere jasotzen dituzte babeserako subjektu. Bestalde, gure hizkuntzari dagokionez, Espainiako Estatuak jarrera hori hartu du, baina Frantziako Estatuak ez du Hitzarmen-markoa sinatu ere egin, ez baitu ezelango derrigortasunik horretarako.

Hitzarmen-markoak jasotzen dituen printzipioei dagokienez, gutxiengo nazionalak, besteak beste, hizkuntza mantendu eta garatzeko neurriak sustatzeko konpromisoa eskatzen zaie Estatuak 5. artikuluan. Halaber, itunaren 10. artikuluan gutxiengo nazionalak hizkuntza maila publikoan edo pribatuan erabiltzeko eskubidea aitortzeko konpromisoa eskatzen zaie. Horrela Estatuak ahalegina egin behar dute pertsonen eta administrazioen arteko harremanak gutxiengoen hizkuntzan ahalbidetzeko neurriak segurtatzeko.

Badira Europako Kontseiluko bi Itun horiek agertzen duten ezaugarri interesgarriak; izan ere, hartutako konpromisoak betetzen diren egiaztatze-ko ebaluazio-zikloak izaten dira. Aipatu ebaluazio-zikloetan Estatuak bete-

tze-mailari buruzko txostenak prestatzeaz gain, gizarte zibil antolatua ere parte hartzen du eta txosten independenteak helarazten dizkie Europako Kontseiluak Itunak monitorizatzeko abian jarri dituen batzordeei.

Europako Batasunaren jardunari lotzen bagatzaizkio, azken hogeitau urteotan erakunde horrek izandako aldaketak azpimarratu beharko genituzke. Hizkuntza-aniztasuna izan da, zalantza barik, Europako Batasunaren ezaugarri nagusietako bat eta aniztasuna bera erabili izan du ikurritzan: *Aniztasunean bildurik*.

Dena den, Europako Batasunaren sorreraren aitzindari Europako Ekonomi Elkartearen hastapenetatik egon den garapenari erreparatuta aniztasun partziala besterik ez dela izan ondoriozta dezakegu. Ekonomi Elkartetik gaur egungo Europako Batasunerako prozesuan zazpi Itun aurkituko ditugu: Erromako Ituna, Europako Akta Bakarra, Maastrichteko Ituna, Amsterdamgo Ituna, Nizako ituna, Europako Itun Konstituzionala eta Lisboako Ituna.

Lisboako Itunaren (2010) 3.3. artikuluan Batasunak kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna errespetatuko duela jasotzen du, bai eta Europako kultura-ondarearen garapena ere. Halaber, Europako Batasunaren Funtzionamenduari Buruzko Itunaren (2008) 167.1. artikulua berariaz jasotzen du Batasunak lagunduko duela kide diren Estatuek barne-aniztasuna sustatzeko.

Hartara, gehienetan hizkuntzaren inguruko aipua bildu zituzten arren, ez dira berariaz jasotzen hizkuntza-eskubideak; bai, ordea, erakundearen hizkuntza-irizpideak. Estatuek osatutako erakundea dela kontuan harturik, Europako Batasuna ez da sartzen kide diren Estatuek aplikatzen dituzten hizkuntza-politikan; haien ustetan barne-arazoa baita. Bitxia da, izan ere, ekonomiarekin edo beste eremu batzuekin hainbat arteztarau sortu ditu Batasunak, eta Estatu guztiak aplikatu beharrekoak dira. Hizkuntzaren afera, aldiz, ez dute helburu; hainbat Estatutan berezko hizkuntza gutxiagotua suntsitzeko, eta ondorioz herritarrak eskubideez gabetzeko, politikak abiatzen badituzte ere.

Hala ere, badira Europako Batasunak, eta gutxiengo hizkuntzei dagokienez, abian jarritako hainbat ekimen eta dinamika. Horietan gehienetan Batasunaren ekarpena ekonomikoa besterik izan ez bada ere. Esaterako, Europako Parlamentuaren ekimenez, 1982an EBLUL erakunde sortu zen. EBLUL (European Bureau for Lessed Used Languages) gobernuz kanpoko erakunde independentea da eta gutxiengo hizkuntzak sustatzen du helburu. Aipatu behar dago EBLUL erakundea 2010ean desagertu dela.

Horrekin batera, Europako Batasuneko gutxiengo talde linguistikoak hobeki ezagutzearren, Batzordeak azterketa bat egiteko agindu zuen, EUROMOSAIC. Azterketa horren bidez, hizkuntzen buruzko informazioa jaso nahi izan zuen, bai eta hizkuntza horiek garatzeko zituzten arazoak ulertu ere. Halaber, gutxiengo hizkuntzei edota kulturei buruzko informazioa trukatzeko helburu duen MERCATOR sarea

1992an Erregio edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Itunari. Helburu nagusia aberastasun kulturala babestea da. Itunak ez du hizkuntza-eskubiderik aitortzen.

III. atalak konpromiso zehatzak jasotzen ditu Itunak, eta horretan Estatuek nahi dituzten hizkuntzei aplikatzen diete. III. atala status ofiziala duten hizkuntzei besterik ez die aplikatuko eta irakurketa zurrin eta diskriminatzaile horren ondorioz, kanpoan geratzen dira euskara legeak Nafarroan ezarritako eremu mistoan zein ez-euskaldunean, euskara Trebiñun eta Turtziozen, asturiera etab.

Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen-markoa 1994ko azaroaren 10ean onartu zuen Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak. Gutxiengo nazionalen babesa arautzen duen lehen ituna dela esan daiteke.

diruz sustatu du Europako Batasunak. Egun hiru eremu jorratzen ditu MERCATOR sareak: Hezkuntza (Frisian), Legeria (Katalunian) eta Hedabideak (Galesen). Horrekin batera, 2004an ADUM proiektua sustatu zuen gutxiengoan hizkuntzen inguruan lan egiten dutenentzako informazioa zabaldu eta proiektu komunak egiteko sarea.

Azken urteotan aipatzekoa da 2005ean Batasunak adostutako *Hizkuntza-aniztasunerako estrategia berria* izeneko dokumentua. Horren ondorioz, 2006ko urrian hizkuntza-aniztasunari buruzko goi-mailako taldea jarri zen abian.

Horrela, 2006an Batzordeak Hizkuntzen ikaskuntza eta kultur aniztasuna sustatzeko Ekintza-plana onartu zuen, eta besteak beste, eskualdeko edo gutxiengoan hizkuntzen ikaskuntza ere jasotzen du. Programa aurrerapausoa dela esan genezake, baina oso mugatua da, ez baitu berariaz jasotzen eskualdeko edo gutxiengoan hizkuntzen ikaskuntzarako programak laguntzea edota ekintza zehatzak abian jartzea. Ekintza-planaren arabera, irakatsi beharreko hizkuntza-taldea eskualdeko, gutxiengoan eta etorkinen hizkuntzak jaso beharko lituzke. Hala ere, ekintzek ez dute hori ezagutzen; esaterako, atzerriko hizkuntzen ikaskuntzari begirako SOCRATES programa Batasuneko hizkuntza ofizialei (irlanderara eta luxenburgera barne) begira besterik ez dago.

Europa eraikitzean hizkuntzek dimentsio politikoa eta ekonomikoa hartu dute, eta horrek eragina dauka Batasuneko jardueretatik kanpo geratzen diren hizkuntzetan. Tamalez, Europako Batasunak ez du kon-tuan hartzen eraikitzen ari diren Europa horretan hizkuntza gutxiago-tuak alboratzeak ekar ditzakeen ondorioak, bai eta hizkuntza horien bar-ne-garapenean ere. Zer pentsa eman beharko lieke horrek guztiak, ber-dintasunean oinarritutako Europa bat eraikiko bada.

GIZARTE ZIBILAREN EKARPENA: HIZKUNTZ ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

Azken hogeitau urteotako errepasoa egiten ari garela, ezin saihestu hizkun-tza-komunitateen berdintasuna lortzeko gizarte zibilak egindako ekarpe-na: 1996an Bartzelonan onartutako Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala.

1993an International Pen Club erakundeko Itzulpen eta Hizkuntza-eskubideen Batzordeak Mallorcan egindako ez-ohiko bileran hasiera eman zitzaion Deklarazioa prestatzeko prozesuari: Munduko edozein hizkuntzatarako idazleak eta hiztunak babesteko beharrari erantzungo zion mundu mailako deklarazioa.

Herralde Katalanetako CIEMEN (Centre Internacional Escarrá per a les Minorías Etniques i les Nacions) erakundearekin batera ekin zitzaion prestakuntzari. Bi urteko eztabaida-prozesu luze eta dinamikoaren ondo-rioz, 1996ko ekainaren 6an Hizkuntza-eskubideen Mundu mailako Kon-ferentzian 90 Estatutako 220 lagunek sinatu zuten adierazpena.

Deklarazioa sinatutakoan UNESCO erakundeko idazkari Federico Mayor Zaragozari helarazi zitzaion. Gizarte zibilak UNESCOren mahai gainean instituzio horretan lanerako ildo gisa hizkuntza eskubideak kontuan hartu beharra eta abiapuntu gisa Bartzelonako Deklarazioa kontuan hartzeko eskatu zion. Izan ere, prozesuaren azken helburua oso argia zen: UNESCOk gomendioa egin ziezaiola Nazio Batuen Erakundeko Asanblada Orokorrari Hizkuntza Eskubideen Nazioarteko Ituna bere egiteko edota Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren osagarri gisa onartzeko.

Lehen bi urteetan aurrerapauso interesgarriak izan ziren. Horrela, Hizkuntzen barrutia sortu zen, edota Mayor Zaragozaren agintearen azken urtean Hizkuntza Aniztasunaren Komite Batzorde Kontsultiboan eratu zen. Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren Jarraipen Batzordea haiekin bildu eta Deklarazioaren azterketa eta hizkuntza eskubideei buruzko testu berri baten prestakuntza helburutzat hartu zuen Batzordeak. Hala ere, Koichiro Maatsura jaunak Mayor Zaragozaren ardura hartu zuenean, gauzak zeharo aldatu ziren. Batetik, Hizkuntzen Barrutia desagertu zen ustezko arrazoi ekonomikoengatik eta interlokuziorik ez da izan ordutik UNESCOrekin.

Berriki, Euskal Herriko, Kurdistango eta Herrialde Katalanetako ordezkariak hala eskaturik, International Pen Club erakundeak Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak bere bidea egin dezan estrategia berraztertzeari ekin dio. Horren ondorioz, 2007ko maiatzean Deklarazio Unibertsaleko jarraipen batzordeko bi kide Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeko presidentearekin bildu ziren, Deklarazioa erakunde horretako eztabaidagai nola izan daitekeen hausnartzeko. Hala ere, bidea luzea izango dela jakin dakigu.

Deklarazioaren edukiari dagokionez, eta akaso hor jarri beharko genuke indarra, hainbat berrikuntza ekarri zuen; ordura arte ezelango itunetan jasotzen ez zirenak hain zuzen ere.

Lehenik eta behin, Deklarazioak jaso zuen berdintasun printzipioa aipatu beharko genuke; beste sailkapen batzuk alde batera utziz Deklarazioak hizkuntza guztien berdintasunaren aldarrikapena egiten duelako. Bigarrenik, azpimarragarria da Deklarazioak eskubideen babeserako definitzen duen subjektua, izan ere, ordura arte erabili ez zen subjektu mota berri bat jaso zuen: hizkuntza komunitatea. Deklarazioaren 1. artikulua arabera, hizkuntza-komunitatea aipatzean zera esan nahi da: edozein gizarte, historian zehar lur-eremu zehatz batean —eremu errekonozitua ala ez-finkatua, bere burua herrizat duena eta hizkuntza komun bat garatu duena kideen arteko komunikazio naturalaren eta kultur kohesioaren bidetzat.

Hala ere, berdintasun-printzipio horretan, eta beste modu batera ezin izan zitekeelako, hizkuntzen elkarrekiko errespetua eta elkarbizitza bermatuko dituen oinarri batzuk ezartzen dira, eta horretarako, mailaketa egiten da eskubideak esleitzerakoan.

Bestalde, Deklarazioak berezko hizkuntza kontzeptuari eduki juridikoari erreparatu behar diogu. Ordura arte ofizialtasuna edo koofizialtasuna soilik

Hitzarmen-markoak jasotzen dituen printzipioei dagokienez, gutxiengo nazionalai, besteak beste, hizkuntza mantendu eta garatzeko neurriak sustatzeko konpromisoa eskatzen zaie Estatuari 5. artikuluan.

***Europako Parlamentuaren
ekimenez, 1982an EBLUL
erakunde sortu zen.
EBLUL (European Bureau
for Lessed Used
Languages) gobernu
kanpoko erakunde
independentea da eta
gutxiengoen hizkuntzak
sustatzen du helburu.
Aipatu behar dago
EBLUL erakundea
2010ean desagertu dela.
Europako Batasuneko
gutxiengoen talde
linguistikoak hobeki
ezagutzearen,
Batzordeak azterketa bat
egiteko agindu zuen,
EUROMOSAIC.***

ziren hizkuntzen statusaren adierazle eta ezaugarri horiek besterik ez zuten eragiten ondorio juridikorik. Deklarazioak sailkapen horrekin hautsi eta horien gaineko ezaugarri bat erabili zuen: Berezko hizkuntza. Horren arabera, hizkuntza baten berezotasuna adierazten zuen, lurralde zehatz batean hizkuntza horrek duen antzinakotasun edo historikotasuna, baina ofizial gisa aintzatetsitako beste hizkuntzen aldean, berezko hizkuntza izateak ez zion ezer eranstean.

Bestalde, Deklarazioaren arabera eskubide indibidualak eta kolektiboak banaezinak eta elkarren mendekoak dira, hau da, hizkuntza eskubideen dimentsio indibiduala eta kolektiboa ezin dira bereizi. Gainera, elkarren osagarri dira hizkuntza komunitate baten barnean garatzen baitira, taldeak, eta aldi berean, komunitate horren barnean norbanakoak erabiltzen du hizkuntza eta hartaz baliatzen da. Horrela, bada, norbanakoen hizkuntza eskubideak ezin dira gauzatu komunitate eta hizkuntza talde guztien eskubideak errespetatzen ez badira.

Aipatutako berrikuntza horietaz gain, nabarmendu behar dugu Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eskubideetan oinarritzen den dokumentua dela, eta beraz, ez dituela derrigortasuna, debekuak edota beharrak ezartzen.

EGUNGO ARGAZKIA

2010ean ere, orain dela hogeitaz hamar urte bezalaxe, Europako hizkuntza asko bizi dira elkarrekin. Hala ere, Estatu bakoitzak barne-aniztasuna kudeatzeko modu desberdinak baliatzen ditu. Are gehiago, barne-aniztasuna desberdin kudeatzeaz gain, Estatuak bere modura sailkatzen dituzte lurralde barruko hizkuntzak.

Europako konstituzioei erreparatuz geri, hizkuntzei honako kategoria hauek esleitzen zaizkie: hizkuntza ofiziala, estatu hizkuntza, hizkuntza nazionala, errepublikako hizkuntza, hizkuntza nagusia, berezko hizkuntza, hizkuntza parekatua, etnien arteko harreman hizkuntza eta bertako populazioaren hizkuntza.

Hala ere, hizkuntzek hartzen duten izendapena bera baino garrantzitsuagoa da Estatuak aniztasuna kudeatzeko modua. Egun, Europa osatzen duten 48 Estatuetakoa konstituzioetatik 9k besterik ez dute hizkuntzen inguruko aipurik jasotzen. 9 horietatik 3k aipuren bat jasotzen dute beste arauetan, eta gainerako 5 Estatuetatik 3 oso txikiak dira eta soziolinguistikoki oso homogeenak: Islandia, Vatikanoa eta San Marino. Laburki bada ere, Europako zuzenbide konstituzionalean hizkuntzaren afera nola agertzen den hamar multzotan sailka genezake (Ruíz Vieytez, 2005²):

- *Hizkuntza-aitorpenak*: Hizkuntza baten edo gehiagoren estatus juridikoa agertzen da.
- *Bereizkeria-ezarekin lotutako xedapenak*: Pertsonen arteko berdintasuna aldarrikatzen duten xedapenak.

- *Hizkuntza ezagutzeko derrigortasuna*: Herritar guztiei edo funtzio publikoan lan zehatza dutenei hizkuntza bat ezagutzeko derrigortasuna ezartzen zaie.
- *Hizkuntza-eskubideen aitortza*: Kolektibo batzuei edo kolektibo horietako pertsoneri eskubideak aitortzen zaizkie.
- *Hizkuntza-bermea*: Atxilotuta edo prozedura juridiko batean dagoen pertsona batek hizkuntza jakin ezean, defentsa edo babes eraginkorra bermatzeko xedapenak.
- *Erabilera instituzionalerako arauak*: Institutuzio publiko zehatzetan hizkuntzaren erabilera arautzen duten xedapenak.
- *Sustapen eta babeserako xedapenak*: Hizkuntza-aniztasunaren edo zenbait hizkuntza-errealitatearen babeserako xedapenak.
- *Eskumen-banaketarako arauak*: Estatuan mintzo diren hizkuntzen aurrean hizkuntza-politika zeini dagokion definitzen duten arauak.
- *Arauetara igortzea*: Hizkuntza-araubidea ondorengo maila apalagoko beste arauetara igortzen duten.
- *Bestelako xedapenak*: Aurreko multzoetatik kanpoko xedapenak.

Hartara, horiek guztiek hizkuntzari zein trataera ematen zaion alde-ratzeko balio badute ere, egungo argazkiarekin amaitzeko nahitaezkoa da Europako Estatuak hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko erabiltzen dituzten bide nagusienak jasotzea:

- Bi hizkuntza ofizialak lurralde osoan Norbanakoaren printzipioan oinarritutako eredia da, alegia, herritarrek nahi dutena hautatzeko eskubidea dute. Adibidez, Malta, Txipre...
- Hizkuntza bat baino gehiago ofiziala, baina ofizialtasuna lurraldeka dago banatuta Lurraldetasunaren printzipioan oinarritutako eredia. Hizkuntza lurraldeari mugak ezartzen zaizkio. Adibidez: Belgika, Suitza...
- Hizkuntza bat ofiziala da lurralde osoan, eta eskualde edo eremu autonomoetan koofizialak diren beste hizkuntza batzuk daude. Adibidez: Espainia, Erresuma Batua...
- Estatuan hizkuntza ofizial bakarra, baina, modu zuzenean ofizialtasuna ezartzen da lurralde eremu txikietan, herrialdeak, udalerriak... Ez lirakeke lurralde autonomia politikoa duten erakunde politikoak izango. Adibidez: Austria, Alemania...
- Estatuan hizkuntza ofizial bakarra, zuzenean izendatua edo praktikan islatua. Talde honen barruan badira gutxiengoaren eskubideak bermatzeko erabaki batzuk, baina ez dute ofizialtasuna aitortzen.

Esan behar dugu azken talde horretan azpitaldeak egin litezkeela, baina luze joko luke kasuistika osoa agertzeak. Dena den, oinarritzko argazkia izateko nahiko dela esango genuke. Akaso, argazkia osatzeko

gizarte zibilak egindako ekarpena: 1996an Bartzelonan onartutako Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala.

Prozesuaren azken helburua oso argia zen: UNESCOk gomendioa egin ziezaiola Nazio Batuen Erakundeko Asanblada Orokorriari Hizkuntza Eskubideen Nazioarteko Ituna bere egiteko edota Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren osagarri gisa onartzeko.

Egun, Europa osatzen duten 48 Estatueta konstituzioetatik 9k besterik ez dute hizkuntzen inguruko aipurik jasotzen. 9 horietatik 3k aipuren bat jasotzen dute beste arauetan, eta gainerako 5 Estatueta 3 oso txikiak dira eta soziolinguistikoki oso homogeneoak: Islandia, Vatikanoa eta San Marino.

Herritarren arteko berdintasuna eta aniztasunaren ondarea aldarrikatzen duen Europak ezin du beste albo batera begiratu kide diren hainbat Estatu hizkuntza-gutxiagotuetako kolektiboekin agertzen duten jarrera erasokorretan.

esan beharko genuke azken taldean aurkitzen direla Estatu gehienak, 22 hain zuzen ere.

ETA ORDUAN, ZER?

Hori da, beraz, Europako hizkuntza-aniztasunaren egungo argazkia, bai eta argazki horri buelta emateko nazioartean eskaintzen diren tresnak ere. Ez dugu zalantzarik argazkiak badituela kezkatzeko elementuak. Gurea bezalako hizkuntzen normalizazioa ez du Europak ahalbidetuko, hori argi izan behar dugula iruditzen zaigu. Dena den, Europak lagun dezake bide horretan.

Herritarren arteko berdintasuna eta aniztasunaren ondarea aldarrikatzen duen Europak ezin du beste albo batera begiratu kide diren hainbat Estatu hizkuntza-gutxiagotuetako kolektiboekin agertzen duten jarrera erasokorretan. Ez dago onartzerik Europako Batasuneko kide izan nahi duen Turkiari nazioarteko oinarriko estandarrak bere egin behar dituela agintzea, eta egun Batasuneko Estatu batzuek estandar horiek sinatzeari edota berresteari muzin egitea.

Hala ere, esan behar dugu gizarte zibila pixkanaka-pixkanaka esnatuz doala. Herri-mugimenduek gero eta tresna gehiago jartzen dituzte beren hizkuntzen normalizazioa ahalbidetzeko: Britainia, Frisia, Okzitania, Euskal Herria, Gales, Herralde Katalanak, Sardinia... Are gehiago, herrien arteko elkarlana inoiz baino gehiago sustatu da azken urteotan. Horrek erakusten digu hizkuntza gutxiagotuen berreskurapenaren aldeko masa sozial aktiboa gero eta handiagoa dela, eta beraz itxaropenez ikusten dugu etorkizuna.

Hona ekarri nahiko nuke berriki Fernand de Varennes irakasle eta adituak Lorienten (Breitainian) *Partnership for Diversity* delako foroan egin dako hausnarketa: "Etorkizuna ez da beltza hizkuntza gutxiagotuei dago kienez, hala ere, instituzioek zer eman dezaketan eta zer emango duten kontuan hartuta, gizarte zibilaren garaia dela esan behar dugu. Gizarte zibilaren determinazioak aldaketak eragin ditzakeela zalantzarik ez dut."

Inoiz gure eta gu bezalakoan arteko elkarlana saretu beharko dugu, Europako instituzioen aurrean ahots bakarra agertu beharko dugu, hain zuzen ere, hizkuntza gutxiagotuetako kide diren milioika hiztunen aho-tsa eraman beharko dugu lau haizetara aldarrikatzen duten *aniztasunean bildurik* ikurritza benetakoa izan dadin.■

OHARRAK

1. Honen inguruko bilketa-lan osatua Santiago Petschen Verdaguerrek egin zuen, eta Eusko Legebiltzarrak 1990ean argitaratu zuen *Las Minorías lingüísticas de Europa Occidental: Documentos (1492-1989)* izeneko liburuetan.

2. RUIZ VIEYTEZ, E. (2005): "Lenguas y Constitución. Una visión del derecho lingüístico comparado en Europa". in *Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, 72 (separata), 231-275. Gasteiz, IVAP.